

EZ ZAITUT EZAGUTZEN

Kalean nago bueltaxka bat ematen.

Errepidea gurutzatzen hasi naizenean, auto baten bozinak izutu nau. Nora zoaz, ba, halako presa duzula, gaztea?, galdetu diot neure buruari errepidea gurutzatzen amaitu bitartean.

Errepidearen bestaldean parke bat dago: hau ere berria dun, Irene! pentsatu dut neure baitan. Gazteak ikusten dira kirola egiten; batek arreta deitu dit, izan ere, korrika dator niregana. Larrituta dirudi. Zer ote du? Parean geratu da, niri begira.

Ni ere begira geratu natzaio. Irribarre egin diot, kortesiaz. Gizona gehiago hurbildu da niregana, ezagutuko banindu bezala. Egoera deserosoa da eta urduritzen hasi naizenez, martxa egitea erabaki dut. Ez du etsi. Atzetik dator eta atsegin, ni limurtu nahian, berarekin joateko eskatu dit.

–Ez naiz zurekin joango, ez zaitut ezagutzen! –oihukatu diot haserre.

Ez du amore eman, ordea. Segika dudanez, martxa bizkortu dut. Bihotza azkartzen sumatzen dut. Itolarriak geldiarazi egin nau. Bat-batean gizonak besotik heldu nau.

– Zatoz nirekin, ama, goazen etxera...–eskatu dit goxo.

*Miren Usabiaga
(C kategoria)*